

Funtsezko elkarteak

Gure negozioa funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkideen sareak osatzen ditu Funtsezko elkarteak.

Materialen eskuragarritasuna bermatzeko, gure enpresak erosle eta hornitzaileen arteko harremanak sortuko du (hornitzaileak kontuan hartu behar dira, baliabideak nondik atera jakiteko). Aliantza mota honen bitartez, gure jarduera aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortuko dugu.



Itunak egitea, interesgarria dela uste dugu, horrela, negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko aukerak edukiko ditugu. Itun honek, zerbitzuak edo produktuak azpikontratatzeko izan ahal dira, edo ezagutza eta azpiegiturak bateratzeko, adibidez.

Ez da praktikoa izaten enpresa batek berak jarduera guztiak egitea. beraz, gure enpresan, zereginak ondo banatuko ditugu. Hasieran, enpresako sortzaile bakoitzak funtsezko baliabide bat jarri zuen

Erik: Teknologiarekin abilezia. Gure produktua oso aurreratua da eta Erikek teknologian duen esperientzia aplikatuko du.

Iker: Harreman publikoetan espezializatua da; beraz, bezeroekin harremanetan jartzeko erretasun gehiago edukiko du, eta hori izango da bere funtsezko jarduera gure enpresan.

Unai: Enpresaren antolakuntzaz arduratuko da. Langileen antolakuntza egingo du eta zer soldata edukiko duten erabakiko du, zenbat diru beharko dugun eta nondik aterako dugun, gure negozioa munduan zehar banatzeko antolatu...

Gonçalo: Salmentarako abilezia. Gure produktua non saldu erabakiko du, merkatuan asko edo gutxi erosi den arduratu behar da...etab.

Azken finean, gure enpresaren **funtsezko elkarteen** helburua erosle eta hornitzaileen arteko harremanak sortzea da, ahalik eta baliabide gehienek eskuragarritasuna lortzeko eta gure jarduera aurrera eramateko.

